



## Eskailera mekanikoak jartzeko proposamena

EA-EAJ koalizioak hiriaren goialdean dauden auzoetara heldu ahal izateko plana aurkeztu du. EA-EAJk auzo horietara iritsi ahal izateko eskailera mekanikoak jartzeko proposatu du. Lehenengo proposamen zehatza Altzarako egin du koalizioak. Larratxo pasealekua eta Altzako kaskoa lotzeko, 1.355.300 euro behar direla jakinarazi du EA-EAJk, hori aztertzeko eskatutako ikerketa jaso ostean. EA-EAJren nahia beste toki batuzetan ere sistema hau indarrean jartzea litzateke. Esaterako, Ilunbe-Ospitaleak, Gantxegi, Amara Zaharra, Urgull...



## Ospitaletan aparkalekua egiteko baimena

Udalak Osakidetzari baimena eman dio ospitaletan auto aparkaleku berria eraikitzeko. Ospitaletan zer nolako auto pilaketak ematen diren kontuan hartuta, udalak 600 leku izango dituen aparkelua eraikitzeko baimena eman du. Aparkalekua gaur egun ospitalen albo batean dagoen aparkalekuaren ondoan eraikiko da. Egundagoen aparkalekua langileentzat izango da, eta berria ospitalera doan edonorentzat. Osakidetzak sei hilabeteko epea du lanak hasteko eta urtebetean amaitu beharko ditu. Donostiako alkate Odon Elorzak bestelako eskaera bat ere egin dio Osakidetzari: egin nahi zuen lurpeko aparkaleku proiektua bertan behera ez uztea.



## Epaiketa bi donostiarren tortura kasuagatik

Donostiako Auzitegian bi guardia zibilen aurkako epaiketa egin da. Guardia zibilak Sebas Lasa eta Alfonso Sebastian gazteak torturatzeari zuzendutako akusatuta. Bi gazte hauek Guardia Zibilak 1998ko maiatzaren 2an atxilotu zituen. Akusazio partikularrak 6 urteko espetxe zigorra eta 12 urteko inhabilitazio berezia eskatu zuen guardia zibil bakoitzarentzat, "tortura delitu larria" leporatuta. Defentsak eta fiskalak absoluzioa eskatu zuten, "deliturik ez dagoelako". Lasak eta Sebastianek Guardia Zibilaren esku elektrodoak, kolpeak, "boltsa" eta abar jasan izana salatatu zuten. Epaia besterik ez da falta orain.



## LEHIAKETA

10 sarrerera ditugu Mikel Telleriak Altza kultur etxean eskainiko duen kontzerturako. Bost lagunentzat bina. Emanaldia maiatzaren 18an izango da 20.00etan. Maiatzaren 13an goizeko 09.00etatik aurrera deitzen duten lehendabiziko bost lagunentzat izango dira sarrerak.

Joan den asteko irabazleak:

June Murua  
Aitziber Murua  
Letizia Nebreda  
Leire Beloki  
Ainhoa Etxabe

FELIZ CUMPLEAÑOS SR. MINISTRO

